

2. EiTb*

EiTB Taldea EAEko komunikazio- eta multimedia-talde publikoa da. EiTb Taldeak, baliabideen kudeaketa eraginkorra eta eragingarria bermaturik, eginkizun hauek ditu.

- EAEko herritarrei era guztietako programazio-generoak eskaintzea, kalitatezko informazioan eta entretenimenduan dituzten premiei erantzuteko.
- Munduari eta, batez ere, atzerrian bizi diren euskaldunei EAEn gertatzen den guztiaren berri ematea.
- Euskararen erabileraren normalizazioa eta sustapena bultzatzea.
- Euskal ikus-entzunezkoen ekoizpena eta garapena sustatzea.
- Euskadin informazioaren gizartearen garapena bultzatzea.

EiTbren ikuskerak honako posizio hone-tan nahi du Taldea 2005erako: merkatuan

lider izatea, nazioartean zabaltzea eta autofinantziazioa, koordinatu garrantzitsuenen artean.

EiTb bere kulturak bereizten du beste komunikazio-talde batzuetatik, besteak beste, balio hauetan oinarrituta: euskara, elkartasuna, pertsonak, gizartea eta kalitatea.

EiTb Taldea lau negozio-unitatek osatzen dute.

EiTBKO LANGILEAK

Zuzendaritzako karguak kenduta, EiTb Talde osoan 884 langile ari dira, honela banatuta (ikus 8. irudia, postu bakoitzean zein kategoria bildu diren jakiteko) . Ez da bildu EiTbnet negozio-unitatearen daturik, 2003ko ekainean sortua baita.

7. irudia. Negozio unitate bakoitzak zer kanal kudeatzen duen

| | Unitateak | Kanalak |
|-------------|----------------------------|---|
| EiTb Taldea | ETB | ETB 1 ETB 2 Canal Vasco ETBsat |
| | EiTb Irratia | Euskadi Irratia Radio Euskadi Radio Vitoria |
| | EiTbnet | eitb.com eitb24.com |
| | Erakunde-zerbitzuak (EiTb) | |

* Egilea: Asier Larrinaga Larrazabal (ETBko Euskara Saileko burua).

8. irudia. Lanpostuak eta kokapena

| Postua | Maila | EiTB | ETB | EI | RV + RE |
|------------------------------|-------|-----------|------------|-----------|------------|
| Ingeniariak | 3 | | 5 | | |
| Lizentziatuak | 3 | 11 | | | |
| Perituak | 3 | | 20 | | |
| Diplomatuak | 3 | 3 | | | |
| Hizkuntzalariak | 4 | | 8 | | |
| Kazetariak | 4 | | 124 | 52 | 87 |
| Erredakzio-laguntzaileak | 3 | | 23 | | |
| Errealizadoreak | 3 | | 23 | | |
| Errealizazioko laguntzaileak | 2 | | 36 | | |
| Produkzioa | 3 | | 34 | | |
| Produkzioko laguntzaileak | 2 | | 2 | | |
| Plangintza | 3 | | 5 | | |
| Dokumentazioa | 3 | | 28 | 2 | 2 |
| Dokumentazioko laguntzaileak | 2 | | 2 | | |
| Administrariak | 3 | 26 | 24 | 5 | 9 |
| Telefonistak | 3 | 1 | | | |
| Informatikoak | 2 | 16 | | | |
| Musika-animatzaileak | 2 | | | 5 | 3 |
| Operadoreak | 2 | | 158 | | |
| Teknikariak | 2 | | 33 | 18 | 29 |
| Teknika-laguntzaileak | 1 | | 35 | | |
| Mantentze-teknikariak | 2 | | 18 | | 1 |
| Mantentze-laguntzaileak | 1 | | 13 | | |
| Gidariak | 1 | 2 | 3 | | |
| Gremioak | 1 | 1 | 10 | | |
| Zaindariak | 1 | 7 | | | |
| Guztira | | 67 | 604 | 82 | 131 |

Taulako bigarren zutabean postu bakoitzari zein hizkuntz maila egokitu zaion adierazi da. EiTB Taldean hizkuntz mailak lau dira, honela definituta.

- Gutxienez, esan zaiona ulertu eta euskaraz erantzuteko gai izatea.
- Idatzizko ohar errazak ulertzeko eta idatzeko gai izatea. Bere laneko harremanetan euskaraz moldatzeko gai izatea.
- EGA pareko maila.
- Euskara lan-tresna dutenen maila.

Lanpostu bakoitzari ikasketen eta zereginen arabera egokitu zaio hizkuntz maila.

Lau mailok erreferentzia hutsak dira, Euskal Irrati Telebistako, Euskal Telebistako eta Eusko Irratiko lan-hitzarmenetan hizkuntz eskakizunak oso modu lausoan definituta daude eta.

Izar batekin markaturiko postuetan Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak ahoz eta idatziz jakitea eskatzen da. Hizkuntz ezagutza postuaren ezaugarrien arabera mailakatuko da. Gainerako postuetan ahoz jakitea baino ez da eskatzen.

Eskakizunen definizioa, lausoaz gain, berri samarra da, 1990. urte ingurukoa.

Urte hori baino lehen are zehazgabeagoa zen aipatutako hiru enpresetako langileei eskatzen zitzairen hizkuntz ezagutza, eta hala gertatu da egun, oraindino ere, hiru enpresetan euskaraz ez dakiten beharginak edo ezagutza eskasa dutenak aritzea.

Gutxi gorabehera, hiru enpresa horietan langileen ehuneko bostek ez dakite euskaraz, eta ehuneko zortzik ez dute ematen lanpostuari dagokion maila. Ehunekoak kategoriaz kategoriaz antzekoak izanik, esandako hiru enpresak batera hartuta, 300 bat pertsonak ez dute euskaraz arazorik (1. eta 2. mailak), eta 350 bat pertsonak oso ondo dakite euskaraz (3. eta 4. mailak).

Radio Euskadin eta Radio Vitorian ez dago hizkuntz eskakizunik jasota lan-hitzarmenetan. Hautapen-probetan meritutzat hartzen da postuari dagokion euskara maila frogatzea, baina ez da nahitaezko baldintza. Horrenbestez, langileen ehuneko berrogeik, gutxi gorabehera, ez dakite euskaraz. Berrogeiren bat langilek ez dute euskaraz arazorik, eta beste berrogeiren batek ondo dakite euskaraz.

ERABILERA-DATUAK

Euskal Irrati Telebistak urtero banatzen die behargin guztiei *Langilearen gogobetetasun-inkesta*. Inkestako 41. galderak hone-

la dio: «Euskara erabiltzen duzu laneko harremanetan?».

Erantzuteko, langileak 0tik 25era arteko eskala erabili behar du, balio hauen arabera:

- 0 inoiz ez.
- 5 batzuetan.
- 15 sarritan.
- 25 beti.

Euskararen erabilerari buruzko galdera 2002ko inkestan egin zen lehenengoz, eta batez besteko emaitzak (bb) eta desbideratze estandarrak (de) hauek dira EiTb Taldearen enpresa bakoitzean (ikus 9. irudia).

Datuok erakusten dutenez, EiTb Taldeko langileen lan-harremanetan ohiko hizkuntza da euskara, batik bat kanporako hizkuntza euskara duten enpresetan: Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan. Desbideratze estandarrek erakusten dute, gainera, euskara ez dakiten langile asko duten enpresetan (Radio Euskadin eta Radio Vitorian) badakitenek sarri erabiltzen dutela laneko harremanetan, EiTb Taldearen batez bestekoaren mailan.

EKIMENAK

Aurreko atal bietan egindako azterketatik datu hauek nabarmendu behar dira.

9. irudia. 2002ko inkestaren emaitzak

| | | EiTb | ETB | EI | RV + RE | Taldea |
|------|----|------|------|------|---------|--------|
| 2002 | bb | 14,6 | 17,1 | 22,4 | 8,2 | 16,0 |
| | de | 5,9 | 6,0 | 3,4 | 7,8 | 6,8 |
| 2003 | bb | 14,8 | 16,8 | 20,6 | 8,8 | 15,8 |
| | de | 6,3 | 6,2 | 4,2 | 7,1 | 6,6 |

bb: batez besteko emaitzak

de: desbideratze estandarrak

- EiTb Taldean lanean diharduten euskaldunek multzo oso handia osatzen dute, 700 pertsonatik gorakoa.
- EiTb Taldeko beharginen ia erdiek euskararen goi-mailako ezagutza dute.
- EiTb Taldeko langileen arteko harremanetan ohiko hizkuntza euskara da, batik bat Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan.

Datuon aurrean, enpresa moduan EiTbren erantzukizuna da hizkuntz etenik ez eragitea bere ardurapeko lan-jardueretan: langileetiko komunikazioan, lan-tresnetan, dokumentazioan eta baliabideetan.

Gaur egun, enpresa barruko lan-jarduerok aplikazio informatikoen bidez egiten dira gehienbat, eta, horrenbestez, hizkuntz etenik eragin nahi ez bada, aplikazio informatikoak euskaraz jarri behar dira beharginen esku.

Hala dela ulertu du Euskal Irrati Telebistak, eta helburutzat jaso du bere negozio-planean 2003. urtetik aurrera, PCO052 adierazlearen bidez.

«Erabiltzaile-interfazea euskaraz duten aplikazioen kopurua, aplikazio-kopuru osoarekiko».

EiTb Taldean 48 aplikazio informatiko erabiltzen dira. Horietatik, 24 gaztelania hutsean daude, 6 gaztelaniaz eta euskaraz, eta 18 euskaraz soil-soilik.

Aplikazioen erdiak gaztelania hutsean daude. Gehienak oso espezifikoak dira, kanpoko enpresetan aginduak eta sortuak hona-

ko sail hauetarako: Aholkularitza Juridikoa (*Matrix Lex*), Kudeaketa Ekonomiko-Administratiboa (*Gentia*) eta Plangintza (*Planificación de recursos*). Sail horietako langileek baino ez dituzte erabiltzen.

Hizkuntza bietan dauden aplikazioak ere oso espezifikoak dira, irratietako fakturazioarekin lotuak gehienbat.

Erdaraz dauden gainerakoetatik, batzuk zaharkituta geratu dira (etiketak inprimatzeko aplikazioa, adibidez), eta besteak berri-tzea aurrekusi da. Hain zuzen, PCO052 adierazleak eboluzio hau izan du (ikus 10. irudia).

Erabiltzaile-interfazea euskara hutsean duten aplikazioak era askotakoak dira: telebistako programazio parrilla prestatzeko, bikoiztutako programen kontrola egiteko, emankizun baten alde zurreko ikuskapenean bilduriko informazio guztiak jasotzeko eta abar. EiTb barruko lan-jardueretan duten garrantziagatik, hiru nabarmendu behar dira.

- Tortolika: Tortolika EiTbko langileentzako barne-sarea da, euskara hutsezko interfazearekin. Erabiltzaileari funtsezko hiru zerbitzu eskaintzen dizkio: komunikazioa (programen eta programazioaren kontsulta, enpresa-barruko albisteak, eguneko menua, iragarki ohola...), dokumentazioa (lan-hitzar-menak, prozedura onartuak, prentsa-bildumak, plan estrategikoa, prebentzio-plana...), eta kudeaketa (auto-eskaera, kutzako eragiketak, bekadunen ebaluazioa, adierazlearen jarraipena, arazoaren jakinarazpena...).

10. irudia. PCO052 adierazlearen eboluzioa

| | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 |
|----------|-------|-------|-------|-------|
| Erreala | 25,00 | 30,00 | 32,00 | |
| Helburua | | | 30,00 | 40,00 |

Kudeaketari loturiko zereginetarako, berariazko aplikazio bana prestatu da, den-denak euskaraz. Berrogeitik gora dira, baina lehen aipaturiko kopuruan (48 aplikazio) bakarria izango balira bezala zenbatu dira.

- Erredakzioa: ETBko albistegiak prestatzeko aplikazioa, ETBn garatua.
- Barne-Produktzioako Proiektua (BPP): Barne-produktzioako programen ekoizpen-prozesu osoa kudeatzeko aplikazioa. Alderdi teknikoari, langileen plangintzari eta kostuei buruzko informazio guztiak biltzen ditu, baita aurrekontua ere.

EiTB Taldean beharginen %80 euskaldunak izanda ere, eta erdiek, gainera, goi-mailako ezagutza izanda ere, euskara hutsezko aplikazioak prestatzean ezagutza apalenekoak izan dira gogoan, eta berariazko ahalegina egin da interfazeak erraz ulertzeko modukoak izan zitezten. Gauza bera esan behar da euskara hutsean prestatu den dokumentazioari buruz.

Jokabide horrek bi helburu ditu: batetik, erabiltzailea ez uxatzea; bestetik, irakasbide izatea. Izan ere, erabiltzaileari eskuarki samurra zaion tresna sarbide egokia da zailtasun zehatzetarako. Halatan, «adierazle» hitzak erabat baztertu du sasoi bateko «indikadore» EiTBko langileen argotean, eta gaztelaniaz ere toki handia kendu dio «indicador» hitzari.

Bigarren ekimen garrantzitsua –euskara-ikastaroak– EiTBko Prestakuntza Sai-

laren ardurapean dago, euskararen ezagutza hobetu nahi duten langileei zuzendua. Euskara-ikastaroak hiru eratarata bideratzen dira.

- Liberazioa: lanpostuari dagokion euskara maila ez duten beharginen eskaintzen zaie lanaldi osoaren liberazioa, baldintza birenkin: gutxienez HABEko 3. urratsa gaindituta edukitzea, eta zerbitzuan ez eragitea ez eragozpenik, ez etenik.
- Diru-laguntzak: EiTBk kostuaren %100 ordaintzen die lanalditik kanpo euskara-maila emendatu nahi duten beharginen, dela euskaltegi edo akademia batean, dela Aurten Bairen programa multimediaren bitartez, dela Aurten Baiko trebatzaile baten laguntzarekin.
- Prestakuntza: hainbat alditan antolatu izan dira EiTBren egoitzetan berariazko prestakuntza-ekintzak, behargin talderen baten laneko beharrezan erantzuteko.

2000. urtetik hona, honenbeste pertsonak hartu dute parte euskara ikastaroetan (ikus 11. irudia).

Aipatzekoa da 1998. eta 1999. urteetan EiTB osoan bederatzi pertsonak izan zutela liberazioa. Halaber, 1999an ETBko eta EIko 150 bat kazetarik 20 orduko prestakuntza-ikastaroa izan zuten, Euskaltzaindiak hil batzuk lehenago *Euskara batuaren ahoskera zaindua* erabakia plazaratu zuela eta. ■

11. irudia. 2000. urtetik hona euskara ikastaroetan parte hartu duten pertsonak

| | Liberazioa | | | | Diru-laguntza | | | | Prestakuntza | | | |
|---------|------------|------|------|------|---------------|------|------|------|--------------|------|------|------|
| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 |
| EiTB | | | | | | | 1 | 2 | | | | |
| ETB | 2 | | | 1 | 17 | 13 | 12 | 7 | 43 | 56 | | |
| EI | | | | | | | | | 65 | 62 | | |
| RE + RV | 2 | | | 16 | 9 | 5 | 6 | | | | | |

Postuak letra larri txikietan idatzita daude. Postuen izenak arbitrarioak dira, eta langile kategoriak multzo handi eta homogeen biltzeko bitartekoak baino ez dira. Ez dute adierazten, nahi eta nahi ez, ikasketa maila edo hierarkia.

Postu bakoitzaren ondoan, parentesi artean, zein hizkuntz maila eskatzen zaion dago adierazita. Postu mota bakoitzaren azpian EITB Taldean dagozkion langile-kategoriak zerrendatu dira.

Ingeniariak (3)

Proiektu-ingeniarria

Lizentziatuak (3)

Abokatua

Soziologoa

Sendagilea

Psikologoa

Ekonomista

Kudeatzaileburu komertziala

Ikerketa- eta audientzia-teknikaria

Peritoak (3)

Produktzio-ingeniarria

Antzetzoki-arduraduna

Kalitate teknikoaren kontrolerako teknikaria

Biltegiko arduraduna

Diplomatuak (3)

Harreman publikoetako teknikaria

Erizaina

Laneko arriskuen prebentziorako teknikaria

Fonotekako arduraduna

Hizkuntzalarriak (4)

Kalitate linguistiko-artistikoaren kontrolerako teknikaria

Hizkuntz kalitatearen kontrolerako teknikaria

Kazetariak (4)

A/B/C/D mailako esatari-erredaktorea

A/B/C mailako erredaktorea

Erredakzio-laguntzaileak (3)

Erredakzio-laguntzailea

Errealizadoreak (3)

Errealizadorea

Errealizazioko laguntzaileak (2)

Diseinatzaile grafikoak

Errealizazio-laguntzailea

Artezlea

Produktzioa (3)

Produktore koordinatzailea

Produktorea

Produktzio-laguntzailea

Produktzioko laguntzaileak (2)

Kanpo-produktzioaren

plangintzako laguntzailea

Plangintza (3)

Planifikatzailea

Kanpo-produktzioko planifikatzailea

Dokumentazioa (3)

Dokumentalista

Dokumentazio-laguntzailea

Dokumentazioko laguntzaileak (2)

Musika-giroatzailea

Administrariak (3)

Administrazio-laguntzailea

Administrazio-ofizialak

Produktzio- eta administrazio-laguntzailea

Telefonistak (3)

Telefonista-harreragilea

Informatikoak (2)

A mailako programatzailea

C mailako mikroinformatika programatzailea

Musika animatzaileak (2)

Musika-animatzaileak

Operadoreak (2)

1./2. mailako kamerariak

1./2. mailako operadoreak

Telebista-operadorea

Ikuskatzailea

Emisio-arduraduna

Teknikariak (2)

Argi-teknikaria

Argizatzailea

Audio-teknikaria

Jarraitasun eta soinuko 1. mailako teknikaria

Jarraitasun eta soinuko 2. mailako teknikaria

Sare-teknikaria

Teknika-laguntzaileak (1)

Audio-laguntzailea

Laguntzaile teknikoak

Sare-laguntzailea

Plato-laguntzailea

Mantentze-teknikariak (2)

Mantentze elektrikoko ofiziala

Mantentze elektrikoko teknikaria

Mantentze orokorreko teknikaria

Mantentze orokorreko arduraduna

Mantentze- eta instalazio-teknikaria

Mantentze elektronikoko 1. mailako teknikaria

Mantentze elektronikoko 2. mailako teknikaria

Mantentze-laguntzaileak (1)

Biltegi-laguntzailea

Gidariak (1)

Unitate mugikorren gidaria

Zuzendari nagusiaren txoferra

Ordenantza-gidaria

Gremioak (1)

Arotza

Atrezzista

Zerbitzu orokorretako langilea

Pintatzailea

Zaindariak (1)

Zinpeko zaindaria

Euskara enpresaren kudeaketan: kasu honen jatorria

Ezagutza Klusterraren azalpena

Agerikoa da enpresen jardunean euskara erabiltzeak onura asko dakarkiola organizazioari, eta bere ekoizkinen balioa areagotzeaz gain bezeroei eskaintzen dien zerbitzua hobetzeko lagungarri dela.

Ezagutzaren Klusterrak enpresa-munduko aldaketen abangoardia izan nahi du. Unibertsitatearen, enpresaren, aholkularitza-enpresen eta erakunde publikoen arteko zubi izatea saiatu gara. Ezagutzaren Klusterrak erronka hau bere gain hartu du eta euskararen erabilpena erakundeetan sustatzeko ekimen ezberdinak burutu ditu denboran zehar. Besteak beste, 1998tik gaur egun arte kudeaketa aurreratutako enpresei buruzko 22 kasu euskaraz idatzi dira eta 2001ean kudeaketaren arloan euskarazko terminologia-glosarioa egin zen Klusterraren ekimenaz.

Ildo hau jarraituz, irekitako bidea lantzen segitzea erabaki genuen. Ezagutzaren Klusterreko bazkide sarean euskara-planetan ari ziren hainbat enpresaren esperientziak trukatu eta elkarren arteko lorpenen berri izatea hasieran eta aurrerantzean elkarlanean jarduteko asmoz, *Euskara eta Kudeaketarako Foroa* sortzeko premia hauteman zen Klusterretik, eta azkenean martxan jarri zen 2003 urtean.

Foroaren helburu nagusiak euskara kudeaketaren arloan erabiltzeak lanari ematen dion balio erantsia aztertzea eta hori jakinaraztea, kontzeptuak eta egoerak argitzea eta esperientziak trukatzeko, eta ikuspegi eta metodo berriak elkarrekin eta elkarrengandik ikastea izan dira.

Foroko partaideek 2003ko abendutik 2005eko martxora arte egin zuten lan. Guztira, 20 erakunde ezberdinetako 37 pertsonak parte hartu zuten: ELHUYAR eta EZAGUTZAREN KLUSTERRA erakunde dinamizatzaile gisa eta AZTI, BATZ, EITB, EMUN, MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOA, ESTE, EUSKO JAURLARITZA, GAIKER, IDOM, IKERLAN, IMH, LABEIN, MCC, ROBOTIKER, TEKNIKER, UZEI, VISESA, eta EHU partaide gisa.

Hauetaz gain, beste erakundeak momentu zehatz batzuetan foroarekin bat lanean aritu ziren: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila; Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza; Bizkaiko Foru Aldundia, Kultura; Gipuzkoako Foru Aldundia; EHU-ko Euskara Errektoreordetza; Ekonomisten Euskal Elkargoa; Energiaren Euskal Erakundea (EEE); ABB Niessen; AHIZE; Danobat; Elkargi; Euskarazko Komunikazio Taldea; Kondia; Maier Koop. E.; MCC; Pasaiaiko Portua eta Urola Kostako HITZA.

Hona hemen Foroan parte hartu zuten pertsonen zerrenda: Leire Arrizabalaga eta Igor Lezamiz (dinamizatzaileak), Igor Álvarez, Blanca Arosa, Gorka Aurre, Itziar Azkue, Edurne Bilbao, Rafael Enparantza, Urrate Etxaburu, Alaitz Etxeandia, Ander Etxeberria, Amaia Gabilondo, Nerea Ganboa, Ainhoa Garayar, Nikolas Gardner, Izaskun Ipiñazar, Asier Larrinaga, Agurtzane Loidi, Xabier Manterola, Jesús Matey, Ibon Muguruza, Itziar Navarro, Joxe Ramón Elortza, Ainhoa Saitua, Ibon Serrano, Joxe Mari Ulazia, Mikel Urdangarin, Karmelo Uriarte, Xavier Uriarte, Arantzazu Urtzelai, Arrate Zamakola, Joxean Zapirain, Amaia Zarrabeitia, Eneko Zarraoa, Jon Zuazabeitia, Karmele Zuazubiskar eta Miren Zubizarreta.

Pertsona horien lanaren fruitu gisa kaleratu zen 2005ean '*Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak*' izeneko txostena. Txosten honetan aztertzen diren gaien artean egungo egoeraren diagnostikoa, euskararen balio erantsia, euskara kudeaketan txertatzeko gakoak, eragileak eta baliabideak azpimarratzekoak dira. Honez gain zortzi esperientzia praktikok osotzen dute informea: Batz S. Coop, EITB, ESTE/EUGT, IMH, Labein Fundazioa, Mondragon Goi-Eskola Politeknikoa, Tekniker eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Agiri honetan horietako bat aurkeztu da; besteak aurkituko dituzu dokumentu honetatik ateratakoan.

Oharra: Txosten osoa eskuratzeko Ezagutzaren Klusterraren Web orrian eska daiteke. <http://clusterconocimiento.com>